



Donibane Lohizune

Hiri Iraunkorra

izateko engaiatua



Zertan gara 2024an



Hiri Iraunkorra urraspidea zinegotziek duten hiriko politika publikoak era iraunkorragoan engeiatzeko xedetik dator.

Biztanleekin eta tokiko eragileekin elkarlanean eraikitako proiektu batetik sortu da.

Helburuak ondoak dira:

- Lurraldeko garapen ekonomikoa sustatzea
- Gizarte mailako aitzinamendua bultzatzea eta kulturarako bidea eskaintzea
- Ingurumena zaintzea

2019an abiatutako urraspide horrek gaurko ere balio du elkargoek urritasun energetikorako bidea hartu behar dutelarik baita haien ohiturak aldatu ere ingurumenaren gaineko eragina murrizteko.

Hiri Iraunkorra urraspidearen esparruan finkatutako helburuei erantzuteko hiriak eraman dituen hainbat ekintza aurkezten ditu txosten horrek eta Donibane Lohizune Hiri Iraunkorra 2030 ekintza plan berriaren abiapunta baliatuko da.

Sar hitza

2019ko lehen edizioaren ondotik, jadanik abiatuak, bidean edo abiatuko diren garapen iraunkorrari lotutako ekintzei buruzko puntua berriz egitea laket zait.

Egoera anitz aldatu da lau urtez, krisialdi klimatikoa larritu baita eta energiak arraroak bezain garestiak bilakatu baitira. Horregatik, gure aurrekontuek itxura berdeagoa dute, eta gure inbertsioen parte handi bat trantsizio energetikoari fidatzen da. Gero eta korapilatsuagoa den diru-testuinguruan, mugikortasunei, ondare-eraikiaren zaharberritzeari eta kutsadura guzien kontrako borrokari lotuak diren ekintza guziak bizkortu behar ditugu.

Horrez gain, Donibane Lohizunek itsasbazterreko hirien be-zitasuna pairatu behar du, hots, itsasbazterren higadura. Egoera larri honi ihardukitzeko, Antolaketarako partaidetza-Proiektu bat sinatu dugu Euskal Hirigune Elkargoarekin eta Estatuko zerbitzuekin.

Beraz, gure heinean abiatu ditugun ekintza guziak aurkituko dituzu dokumentu honetan, ttipienetatik korapilatsuenetara. Gisa horretan, Donibane Lohizuneko Herriko Etxea eginahala arizan behar da, izan bakarka ala besteekin, gure planetaren eta bere biztanleen etorkizuna jokoan baita. Baina gutariko bakoitzari dagokio ere eraikinari bere harria ekartzea, gure egunerokoan eko-herritarak izan behar baikara.



Jean-François Irigoyen

Donibane Lohizuneko Auzapeza
Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariordea,
Mugikortasun iraunkorren eta berritzaileen,
portuen eta arrantzaren arduraduna

Aurkibidea

ARDATZA 01

Trantsizio energetikoan oinarritutako hiri-antolaketak eta garapen ekonomikoa

HELBURUA 01

Herritarren karbono-energiaren kontsumoa murriztea haien joan-jinetan eta etxebizitzan

HELBURUA 02

Enplegu kalifikatuak eta lekutu ezinak mantentzea eta sortzea

HELBURUA 03

Donibane Lohizune turismo arduratsu urraspide batean engaiatzea

HELBURUA 04

Zirkuitu laburreko kalitatezko janari ekoizpena sustatzea

EKINTZA OSAGARRIAK

Urrunago joateko

ARDATZA 02

Aldaketa klimatikoari egokitzen den bizi ingurumen zaindua

HELBURUA 05

Ondare eraikiak eta Hiriko paisaiak zaintzea

HELBURUA 06

Bioaniztasunaren zaintza Donibaneko naturaguneen erabilerarekin bateratzea

HELBURUA 07

Hiria itsasbazterreko higaduraren eta aldaketa klimatikoen ondorioei egokitzea

EKINTZA OSAGARRIAK

Urrunago joateko

ARDATZA 03

Gizarte kohesio eta kultura-bizitza indartuak

HELBURUA 08

Etxebizitza ukan, baldintza ekonomiko onargarrietan

HELBURUA 09

Herritarrak laguntzea egokitutako zerbitzu publikoei esker

HELBURUA 10

Kultura eta kirol politikak garatzea

HELBURUA 11

Herritartasun ohitura berriak ezagutaraztea eta harraraztea

EKINTZA OSAGARRIAK

Urrunago joateko

ARDATZA 04

Trantsizio energetikoan sartzen diren hiriko zerbitzuak

HELBURUA 12

Hiriko zerbitzuen karbono-energiekiko menekotasuna murriztea

HELBURUA 13

Hiriko "Finantzabidea eta erosketa" funtzioa mobilizatzea ohitura eta eskaintza ekonomiko eko-arduratsuak bultzatzeko

HELBURUA 14

Hiri Iraunkorra urraspidea animatzeko eta erregulariki ebaluatzeko elkargo barneko baldintzak gauzatzea

EKINTZA OSAGARRIAK

Urrunago joateko

01 ARDATZA

Trantsizio energetikoan
oinarritutako hiri-antolaketa
eta garapen ekonomikoa

HELBURUA 01 · 1/2

Herritarren karbono-energiaren kontsumoa murriztea haien joan-jinetan eta etxebizitzan.

Egitate eremua : ■ Beharbizun energetikoak & airearen kalitatea ■ Ingurumenaren zaintza ■ Gizarte kohesioa eta elkartasuna
■ Bizi koadroa ■ Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** ● Egina ●●● Aribidean

1.1

Oinezkoendako seinaleak plantan ezartzea eta autobus geldialdiak antolatzea mugikortasun iraunkorrak sustatzeko



●●● Oinezkoen seinaleak zabalduak izan dira erdigune historikoan eta bideak helgarri ezartzea aitzina doa. Hirigune Elkargoa autobus geldialdiak antolatzen ari da.

● GEUZak ikasleei zuzendutako garraio laguntza berri bat plantan ezarri du Txik Txak harpidetzarako.

1.2

Elektro-mugikortasuna garatzea ibilgailu elektrikoendako kargaguneak jarritz



● 4 kargagune ezartzea.

●●● Publiko zabalari helgarriak izanen zaizkion kargagune gehiago zabaltzeko lanean ari da hiria. Hiriko webgunean, hirian dauden kargagune pribatuen eta publikoen kokapena eskuragarri izateko bidean.

1.3

Bizikletak libreki alokatzeko zerbitzu bat plantan ezartzea, bizikleta bideak eta bide eztiak garatzea



● Donibane Lohizune Bizikleta Hiria proiektua abiatzea: hitzartze dinamika 2021ean eta bizikleta-azpiegituren diagnostiko oso-oso publiko zabalari aurkeztuak, ibilbideak

●●● Bizikleta eskema apailatua izateko bidean bizikleta bideak eta ibilbideak garatzeko.

● Bizikleta elektrikoak epe luzerako alokatzeko dispositibo bat plantan ezartzea Euskal Elkargoarekin elkarlanean, biztanleek garraio bide hori saia dezaten, Donibane Lohizune bizikletak alokatzeko hautatutako 17 guneetako bat da, 20 bizikleta proposatzen dituelarik.

» www.location.velo.txiktxak.fr

01 ARDATZA

Trantsizio energetikoan oinarritutako hiri-antolaketak eta garapen ekonomikoa

HELBURUA 01 · 212

Herritarren karbono-energiaren kontsumoa murriztea haien joan-jinetan eta etxebizitzan.

Egitate eremua : ■ Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea ■ Ingurumenaren zaintza ■ Gizarte kohesioa eta elkartasuna
■ Bizi koadroa ■ Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** ● Egina ●● Aribidean

1.4

Bizitegi sozialen zaharberitze termikoa



- IXAKA egoitzen higiezin multzo solidario osoaren zaharberitze energetikoa, eraikinak kanpotik isolatuz.
- Bizilekuen hobetzeko laguntza programa "bien chez soi" deituriko Interes Orokorreko Proiektuaren baitan Egina

1.5

Leihatila bakar bat sortzea etxebizitzaren hobetzeari eta laguntza administratiboei, teknikoei eta diru mailakoei buruzko aholkuak emateko



- Estatuaren sostenguearekin, La Maison France Service zerbitzugune bat sortzea hiri barnean, GEUZak kudeaturik, orientazio leihatila bakarra (ikus 9.3 ekintza)

1.6

Existitzen diren azotegiak berritzea, hiriaren zabaltzea murrizteko



- 2022. urte hastapenean, Office 64 de l'Habitat erakundeak "Lilitegia" bukatu du, COLEk ere "Iduzki Mendi", HSAk Alturan II, Urquijo Baita II, eta Santiago.
- Beste proiektu batzuk aribidean dira, besteak beste Foch gunearen hiri-antolaketa baita ere Karzingo Borda eta Lilitegia 2 operazioak.

01 ARDATZA

Trantsizio energetikoan
oinarritutako hiri-antolaketak
eta garapen ekonomikoa

HELBURUA 02 · 1/2

Enplegu kalifikatuak eta lekutu ezinak mantentzea eta sortzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadra Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

2.1

Tokiko merkataritza eskaintza sustatzea



- Hiri barneko kudeatzaile bat hartzea ekintzak argitan ezartzeko: Urri gormanta, KDO txartelak..
- GEUZak kolegioko ikasleei zuzendutako laguntza bat sortzea, Donibaneko saltegieta soilik erabil daitezkeen erosbonuak proposatuz.

2.2

Hutsik dauden merkataritza lokalen gaineko
zerga sustatzaile bat plantan ezartzea,
okupatzera bultzatzeko



- 2018ko urtarrilaren 1etik goiti, alfer utzitako saltegien gaineko urteko zerga bat plantan ezarria, hutsik dauden saltegien aurka borrokatzeko.

2.3

Ofiziale eremuak zabaltzea: Jaldai IV
eta Jaldai gainak



- Jaldai IV ofiziale eremua zabaltzea lurak erosiz lurren berrosatze orokorraren esparruan.
- Jaldai gainei dagokienez, obrak 2026an hasia pentsatzen dugu, THPa aldatu eta.

01 ARDATZA

Trantsizio energetikoan
oinarritutako hiri-antolaketa
eta garapen ekonomikoa

HELBURUA 02 · 212

Enplegu kalifikatuak eta lekutu ezinak mantentzea eta sortzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

2.4

Sorkuntza Gune bat antolatzea Jaldain, Ekonomia urdinari lotutako proiektu berritzaileak laguntzeko, eraikuntza numerikorako lantegi batean



● Créaluz, Sorkuntza Gunea Jaldain estreinatua 2020an, Ekonomia urdinari lotutako proiektu berritzaileak laguntzeko, eraikuntza numerikorako lantegi batean.

2.5

Mintegi etxe bat sortzea:



●●● Mintegi eta biltzar etxe bat sortzeko programazioa ikertzen ari, "lau urtaroko" turismoa garatzeko asmoz.

2.6

Laborantza guneen kontsumoa neurtzea



● Laborantza lur-estrategia bat zabaltea hirian eta identifikatutako hiriko 4 lursailen gaineko proiektu deialdi bat argitaratzea.

● Hiriak laborari gazteak ere laguntzen ditu haien plantatze proiektuetan.

01 ARDATZA

Trantsizio energetikoan
oinarritutako hiri-antolaketa
eta garapen ekonomikoa

HELBURUA 03 · 112

Donibane Lohizune turismo arduratsu urraspide batean engaiatzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

3.1

Tokiko ondarea ezagutarazteko jarduerak
eta bisita gidatuak garatzea



Publiko zabalarri, familiei, ikasleei eta aisialdi zentroi Donibane Lohizune eta Ziburuko ondarea ezagutarazteko programazio bat plantan ezartzea, 40 bisita eta tailer baino gehiagoko dispositiboaren bidez.

3.2

Lurraldearen erakargarritasuna indartzea
turismoa laguntzeko (ondarea, kultura eta aisiak)
urte osoan zehar



Besta animazio ugari proposatuak zaizkie publiko guzietan urte osoan zehar (gaikako animazioak, "Urri gormanta", "Tokiko ekoizleen merkatuak", musika animazioak...)

3.3

Ekitaldi eta jarduerak ohitura iraunkoragoetara
eramatea mailaka: plastikoak murriztea
eta hondakinak bereiztea



Diru laguntzak eskatzen dituztelarik, elkarteak ekitaldi eko-arduratsuen antolatzerara engaiatzen dira. Ekitaldi batzuetarako, berinazko botilak hobesten dira eta botatzeko plastikozko edalontziak debekatzen.

01 ARDATZA

Trantsizio energetikoan
oinarritutako hiri-antolaketa
eta garapen ekonomikoa

HELBURUA 03 · 212

Donibane Lohizune turismo arduratsu urraspide batean engaiatzea

Egitate eremua : ■ Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea ■ Ingurumenaren zaintza ■ Gizarte kohesioa eta elkartasuna
■ Bizi koadroa ■ Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** ● Egina ●●● Aribidean

3.4

Lehorreratutako edo igeri dauden hondakinak itsasoan biltzea, eskuz biltzea, iparreko hondartzetan "marea ontziak" jartzea urtaroen arabera, Euskal Elkargoak egindako hondartza gidaliburu bat zabaltzea



- Neguan hondakinak biltzeko marea ontziak zabaltzea eta udan eko jesteri buruzko komunikazio taulak hedatzea hondartzan dabilzan jendeak sentsibilizatzeko.

- "Hemen da itsasoa hasten" plakak ezartzea arroiletatik hurbil, itsasoaren kutsaduraren aurka borrokatzeko.

- ALCOME eko-erakundearekin hitzarmen bat izenpetzea zigarreta muturrak murrizteko eremu publikoan. Zigarreta muturrak biltzeko eta baliozatzeko dispositiboa zabaltzea Tree6Cloperen bitartez eta erabiltzaileak sentsibilizatzea.

3.5

Euskal Hirigune Elkargoaren kudeaketa aktiboa bainatzeko uren kalitaterako eta berriak emateko aplikazio berri bat sakelako adimendunetan



- Bainatzeko uren kudeaketa dinamikoa, eguneroko ikerketa bermatuz, Euskal Elkargoarekin eta Eskualdeko Osasun Agentziarekin elkarlanean.

- Foch gunearen obrek ur sare desberdinak bereizteko bidea emanen dute haien kudeaketa hobetzeko.

- Kalilo urrikako aplikazioak Ipar Euskal Herriko hondartzetara buruzko informazio baliagarriak ezagutzeko bidea ematen du: banderaren kolorea, zaintza ordutegia, haizea, uhinak eta itsasaldiei buruzko tokiko xehetasunak, bainatzeko uren kalitatea.

3.6

Ur gutiago xahutzeko dispositibo orokor bat plantan ezartzea: hondartzetako dutxak, karriketako iturriak, eskolak, eraikin publikoak...



- Xantakoko itsasketa garajearen zaharberritzea kari, euri urak biltzeko sistema bat plantan ezartzea itsasontziak garbitzeko.

- Hondartzetan, dutxa-telefono kopurua murriztea eta kentzea idorte garaietan.

01 ARDATZA

Trantsizio energetikoan oinarritutako hiri-antolaketa eta garapen ekonomikoa

Zirkuitu laburreko kalitatezko janari ekoizpena sustatzea

Egitate eremua : ■ Beharbizun energetikoak & airearen kalitatea ■ Ingurumenaren zaintza ■ Gizarte kohesioa eta elkartasuna ■ Biziki koadroa ■ Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** ● Egina ●● Aribidean

4.1

Zirkuitu laburretan apailatutako apairuak etxera ekartzeko zerbitzua

- ✓
-
- ✓
-
-
-
-



● Nekezian direnentzat apairuak ekartzeko zerbitzua plantan ezartzea tokiko ekoizkin biologikoak hobetsiz. Ekoizkinen %60a zirkuitu laburretatik datoz eta hornitzaileen %74a departamendukoak dira.

4.2

Zirkuitu laburretarako helgarritasuna bultzatzea: tokiko ekoizleen merkatua eta salmenta zuzena, ELME

- ✓
-
- ✓
-
-
-
-



● Merkatu plazan eta honen inguruan antolatutako ekitaldi ugari tokiko merkatariek eta ekoizleak agerian ezartzeko bidea eskaintzen dute. "Tokiko ekoizleen gunea" ere aurki daiteke Merkatu plazan. Udaro, tokiko ekoizleen merkatua izaten da larunbat goizetan.

4.3

Zirkuitu laburreko hornikuntza garatzea eskolako jantegietan

- ✓
- ✓
- ✓
-
-
-
-

	2. ALDIKO MENURAK	3. ALDIKO MENURAK	4. ALDIKO MENURAK
ERABAKI	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak
ZEAKITA	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak
BEZELAKA	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak
OTZAKA	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak
AKTIBOAK	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak
AKTIBOAK	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak	Arrozak, makilak, berberak, Legazki, bakalar, Arroz, berberak, Gurria, Puzak

● Zirkuitu laburrak eta biologikoak garatzea Ravel lizeoak kudeatzen duen erosketa-talde berezi batean sartuz. Orotara, ekoizkinen %50a zirkuitu laburrean sartzen da eta %20a biologikoa da.

01 ARDATZA

Trantsizio energetikoan
oinarritutako hiri-antolaketa
eta garapen ekonomikoa

HELBURUA 04 · 212

Zirkuitu laburreko kalitatezko janari ekoizpena sustatzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

4.4

Janari autonomia sustatzea familia-baratzei esker
eta baratze partekatuak sortzea hainbat egoitzetan



- Familia-baratze lursail batzuk zatikatzea jende gehiagori baratzean aritzeko bidea eskaintzeko. 2020 eta 2023 artean, hastapeneko 200m²ko 23 lursailetatik 8 zatikatuak izan dira, 16 donibandar gehiagori familia-baratze horiei heltzeko bidea eskainiz.

- Baratze partekatuak terraza teilatu moduan garatzea Lilitegia egoitzan, egoiliarrek laguntzen dituen Libre cueillette elkartearekin elkarlanean.

4.5

Hurbileko laborantza bat garatzea eta laborari
berriak laguntzea



- Laborantza lurren batzorde bat sortzea 2022tik goiti hiriko laborantza proiektuak laguntzeko.

- Hirian proiektu bat abiarazi nahi duten laborariei zuzendutako "Laborantza lurrak" proiektu deialdi bat zabaltea.

4.6

Tokiko sailak balioan ezartzea, Herriko saila barne
(Euskal Herriko idikia)



- Hainbat ekitaldik tokiko sailei balioa ematen diete urte osoan zehar: Urri Gormanta, Ahuntz Besta, Itsasotik, Atun Besta. Ekitaldi horiek tokiko ekoizleei eta tokian hornitzen diren saltegiei balioa ematen diete.

01 ARDATZA

Trantsizio energetikoan
oinarritutako hiri-antolaketa
eta garapen ekonomikoa

EKINTZA OSAGARRIAK

Urrunago joateko

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

A.1

Hurbileko konpostatze gune bat sortu da
Xantakoko golfarekin eta Collecte & Compost
elkartarekin partaidetzan



● Gune hori esperimental eta pedagogikoa da, Xantakoko bidean kokatua, eta konpostatzearen urrats desberdinak erakusten ditu, esplikazio-taula batzuek bermaturik. Zentroko eskolako eta Urdazuri eskolako kantinetako biohondakinak bizikletaz bilduak dira eta garraiatuak gune horretara konpost bihurtzeko.

A.2

Progresiboki auzo-konpostagailuak ezarriko dira



● Lehenbiziko konpostagailua 2023an ezarri da Lakuko auzoan, nahi duten bertako biztanleek beren biohondakinak balorizatzen. Beste batzuk ezarriko dira 2024an.

A.3

Udan eguzkiko crema ekoarduratsua erabiltzaileen
esku ezarriko da itsas kutsadurari sentsibilizatzen



● Erabiltzaileak uda osoan crema banagailuan librokiz zerbitzatzen ahalko dira igerizainen guneen irekitze tenoreetan berentzat eta ingurumenarentzat sana den eguzki-gerizaz baliatzeko.

02 ARDATZA

Aldaketa klimatikoari egokitzen den bizi ingurumen zaindua

HELBURUA 05 · 112

Ondare eraikiak eta Hiriko paisaiak zaintzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

5.1

“Ondare Ohargarriko Gunea” eremuko arauak eta gomendioak plantan ezartzea



••• Oinarrizko dokumentu bat plantan ezartzea “Site Patrimonial Remarquable” (Ondare Ohargarriko Gunea) eremurako, berrikusi beharko dena energia berriztatzaileak garatzeko aukera gehitzeko.

5.2

Publizitatearen araudia berrikustea hiriko eremuan, sarbideak eta bide nagusiak zaintzeko, publizitate numerikoa arautze



••• 2020an, publizitatearen tokiko araudi berria onartzea. Iragarki taula batzuk murriztea eta kentzea. Iragarki taulen eta entseinen itzaltzea kontrolatzea.

● Hiriko argien itzaltzeak hiriko eremu batzuk hunkitzen ditu, bioaniztasuna zaintzeko eta urritasun energetiko hobean parte hartzeko.

5.3

Eremu publikoaren okupazioaren gutuna eguneratzea hurbileko saltegien erakargarritasuna zaintzeko



••• Eremu publikoaren okupazioaren gutuna eguneratua izateko bidean da hurbileko saltegien erakargarritasuna zaintzeko.

02 ARDATZA

Aldaketa klimatikoari egokitzen den bizi ingurumen zaindua

HELBURUA 05 · 212

Ondare eraikiak eta Hiriko paisaiak zaintzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

5.4

Tokiko arkitekturari balioa ematea Donibane Lohizune - Ziburu Arte eta Historia Herrialdea labelaren esparruan



● Ondarearen Europako egunak, Arkitekturaren Frantziako egunak eta ondare-bisitak urtero antolatzea tokiko arkitekturari balioa emateko, Donibane Lohizune - Ziburu / Arte eta Historia Herrialdea labelaren esparruan.

5.5

Errekoletoen komentua zaharberritzea Arkitektura eta Ondarearen Interpretazio Zentroa bihurtuz Donibane Lohizune - Ziburu / Arte eta Historia Herrialdea labelaren esparruan



● Arkitekturaren eta Ondarearen Interpretazio Zentroa 2023ko azaroaren 28an publikoari bere ateak ireki zaizkio.

5.6

Tokiko heskaiei balioa emateko eskuorri pedagogiko bat argitaratzea Euskal kostaldeko paisaia zaintzeko



● "Zure heskaiak tokiko landare motekin osatu" eskuorri pedagogiko bat zabaltzea, biztanleak tokiko heskaiak landatzera bultzatzeko eraikitzeko baimen bat aurkezten dietelarik Hirigintza zerbitzuei. Eskuorria hiriko webgunean eskuragarri dago.
» www.saintjeandeluz.fr/fr/des-idees-pour-composer-vos-haies-avec-des-especes-locales

02 ARDATZA

Aldaketa klimatikoari egokitzen den bizi ingurumen zaindua

HELBURUA 06 · 112

helburua: Bioaniztasunaren zaintza Donibaneko naturaguneen erabilerarekin bateratzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

6.1

Drainatzea, erreken kalitatea eta bainatze guneen kudeaketa



••• Euskal Hirigune Elkargoa urte askotako drainatze inbestimenduaren programa zabaltzen ari da kudeaketa hobeko baterako.

••• Artxiloko araztegiaren lekuz aldaketa eta modernizatzea arazuko betebeharreri erantzuteko eta, aldi berean, demografiaren mugak eta ingurumenaren kontserbazioa kontuan hartzeko.

6.2

Artxiloko Naturagune Kalteberen ondare- eta naturaguneak berritzea



● Artxiloko Naturagune Kaltebera berritzeko ekintza ugari eramanak izan dira 64 Departamenduko Kontseiluarekin elkarlanean.

••• Urdazuriko errepira Ereku Natural Sentikor (ENS) gisa sailkatua da. Publiko zabala sentsibilizatzeko xedez, bistaleku bat plantan ezarria izan da, obra parte hartzaileak eta ezagutza-ibilaldiak abiatuak izan dira.

6.3

Landare-baratze botanikoaren misioa euskal itsasbaterreko naturaguneak eta landare babestuak zaintzeko



● Itsasertzeko landare-baratze botanikoaren xedea da naturaguneak zaintzea orokorrean, besteak beste hiriko Naturagune Kalteberak berritzeko misioen bidez.

02 ARDATZA

Aldaketa klimatikoari egokitzen den bizi ingurumen zaindua

HELBURUA 06 · 212

Bioaniztasunaren zaintza Donibaneko naturaguneen erabilerarekin bateratzea

Egitate eremua : ■ Beharbizun energetikoak & airearen kalitatea ■ Ingurumenaren zaintza ■ Gizarte kohesioa eta elkartasuna
■ Bizi koadroa ■ Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** ● Egina ●●● Aribidean

6.4 Publiko zabalari eta eskolako ikasleei zuzendutako Itsasertzeko ladare-baratze botanikoko tailerrak: itsasbazterraren ezagutzea, baratzea, konpostatzea, habiak, minda, basa-aberedia...



● Tailer ugari antolatuta dira urtero Itsasertzeko ladare-baratze botanikoan publiko zabala baratzezaintzari eta garapen iraunkorrari sentsibilizatzeko (garbigarri naturalak, konpostatzeko tailerrak, habiak ezartzea...). Programa eskuragarri dago ondoko webgunean:
 » www.saintjeandeluz.fr/fr/a-voir-a-faire/jardin-botanique/animations

6.5 Hiriko berdeguneen kudeaketa iraunkorra eta produktu fitosanitariorik gehiago ez erabiltzea eremu haietan



● Hiriko berdeguneen kudeaketa iraunkorra abiatua izan da. Zerbitzuek ez dute gehiago produktu fitosanitariorik erabiltzen eta euri urak berrera-biltzen dituzte hiriko berotegietan.

6.6 "Zerofito" ibilbide pedagogiko bat sortzea hirian, osasunerako eta ingurumenerako sanoak diren baratzezaintza teknikak sustatzeko



● "Zerofito" ibilbide pedagogikoa zabaltea hirian, komunikazio taula batzuen bidez. Publiko zabalari zuzendutako bi bisita gidatuak antolatuta izan dira 2018ko Ondarearen Europako Egunak kari eta 2019ko Pestizidarik gabeko alternatiben astea kari.

02 ARDATZA

Aldaketa klimatikoari egokitzen den bizi ingurumen zaindua

HELBURUA 07 · 112

Hiria itsasbazterreko higaduraren eta aldaketa klimatikoen ondorioei egokitzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

7.1

Hiriko Arrisku Naturalen Prebentzio Plana apailatzea: arriskuko eremuak eta horiei dagozkien araudiak finkatzea



••• Arrisku Naturalen Prebentzio Plana berrikusteko bidean da hirian, eta Estatuak segitzen du.

7.2

Hiriko Babes Zibileko Plana eguneratzea: kudeaketa planifikatzea arrisku handiko kasuetan (naturala, teknologikoa, osasun arlokoa...)



● Biztanleria babestu nahian, hiriak arriskuen prebentzio estrategia bat garatu du bere hiriko babes zibileko planaren bitartez.

7.3

Segurtasun dispositiboak plantan ezartzea arrisku naturalei lotutako lanjerren kasuan (ur gairiditzaiek, uholdeak...)



● Arrisku naturalei lotutako lanjerren kasuan, hiriak segurtasun portaleak plantan ezarri ditu hondartza guzietan.

02 ARDATZA

Aldaketa klimatikoari egokitzen den bizi ingurumen zaindua

HELBURUA 07 · 212

Hiria itsasbazterreko higaduraren eta aldaketa klimatikoen ondorioei egokitzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

7.4

Higaduraren aurrean, Euskal Hirigune Elkargoak eramaten duen itsasertz lerroaren kudeaketa estrategiaren finkatzean parte hartzea



- Itsasbazterreko arriskuak kudeatzeko itsasbazterreko estrategiaren harira, hiriak itsas higadurari buru egiteko itsasbazter espazioa birmoldatzeko Antolaketarako Elkarlan Proiektu (AEP) bat izenpetu du Euskal Hirigune Elkargoarekin, Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuarekin eta Estatuarekin, 2021eko urrian.

7.5

“Oporlekuen Antolaketa Iraunkorra” ikerketa segitzea hiriko ipar itsasbazterreko hiri-bilakaera laguntzeko



- “Oporlekuen Antolaketa Iraunkorra” ikerketa aitzina doa Euskal Hirigune Elkargoarekin eramandako Antolaketarako Elkarlan Planaren bitartez, hiriko ipar itsasbazterreko hiri-bilakaera laguntzeko.

7.6

Espezie exotiko inbaditzaileen aurka borrokatzea: liztor asiarra, pinu-beldarra, panpa-lezka, eltxo tigre, ...



- Espezie exotikoen aurka borrokatzeko, hiriak prebentzioz esku hartzen du usoen eta pinu-beldarren aurka. Herritarrek liztor asiarren habiak identifikatzen eta suntsitzen laguntzen ditu.
- Panpa-lezkari dagokionez, ADELI erakundeak lagundurik, lorategi botanikoa tokian berean ari da landare honen ugaritzearen aurka.

02 ARDATZA

Aldaketa klimatikoari egokitzen den bizi ingurumen zaindua

EKINTZA OSAGARRIAK

Urrunago joateko

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

A.1

Landaretzeko baimena abiatzea



Biztanleak beren auzotegia edertzerara eta artatzerara bultzatzeko, baita lurrak iragazkor bihurtzeko, landaretzeko baimen bat plantan ezarria izan da hirian, 2023ko udaberrian. Eskaera egiteko inprimakia linean aurkitu.

A.2

Eko-bazkalekua plantan ezartzea



Eko-bazkaleku baten proiektua, hausnarkari ttipiekin egindako bazkaleku ekologikoa, plantan ezarria izan da hiriko 3 gunetan 2023an zehar. Belarki eta gramineoak mozteko teknika horrek emaitzak lortzeko bidea ematen du, gailurik eta produktu kimikorik (belar pozoia) erabili gabe.

A.3

Kirol zelaiaren zentuzko kudeaketa Xantakon



Sargai ahal bezain guti erabiltzeko, hiriko zerbitzu teknikoek hiriko kirol zelaia zentuz kudeatzeko urraspidea eramaten dute Xantakon.

03 ARDATZA

Gizarte kohesio eta
kultura-bizitza indartuak

HELBURUA 08 · 112

Etxebizitza ukan, baldintza ekonomiko onargarrietan

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

8.1

Gizarte nahasketa eta bizitegi aniztasuna indartzea
Elgar auzotegian



● Hiria-aren laguntza baratze partekatuen proiektuaren esparruan, Elgarreko biztanleen ekimenez, gizarte lotura sustatzeko.

8.2

Etxebizitza eskaintza aniztea: alokatze soziala,
jabe sozialera heltzea, bizitegi pribatua
Trialdi gunean



● "Lilitegia" ekintzak bukatuak Trialdi gunean 2022. urte hastapenean, Office 64 Habitat erakundearen eskutik, gure etxebizitza eskaintzaren aniztea sustatuz.

8.3

Etxebizitza sozialak eta ekipamendu publikoak
eraikitzeko programei zuzendutako lurak gordetzea



● Hiriak lurak erosten segitzea Ipar Euskal Herriko Tokiko lur-funtzen Erakunde Publikoaren bitartez (EPFL), lurak eskuratzen laguntzen duelarik. Villa Maria Dolores erostea Hirizaintza etxe berria hartzeko, eta lursail natural bat, itsasbazter espazioa birmoldatzeko AEParen esparruan.

Etxebizitza ukan, baldintza ekonomiko onargarrietan

Egitate eremua : ■ Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea ■ Ingurumenaren zaintza ■ Gizarte kohesioa eta elkartasuna
■ Bizi koadroa ■ Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** ● Egina ●●● Aribidean

8.4

Erosteko etxebizitzak sozial mailakoak izateko xedea helburutzat duten klausulak plantan ezartzea



● Espekulazioaren aurkako klausulak plantan ezartzea jabetgo sozialera heltzeko programa berrietan.

8.5

Etxebizitza merkeetara heltzeko dispositibo berriak garatzea: Elkartasuneko Alokatzeko Kontratu Errealak



● Elkartasuneko alokatze kontratu errealak bezalako dispositibo berriak garatzea. Familiei erosteko bidea (irabazien arabera) eta lurak garestiagoak diren auzotegietan etxebizitza topatzeko aukera eskaintzen die, lurak jabetgo eraikietatik bereiziz. Ekintza batzuen adibideak: Iduzki Mendi ekintza (LE COL), Santiago (ALDAY-HSA) Fargeot auzotegian.

8.6

Larrialdiko etxebizitzak sortzea GEUZarekin: bortizkeriak jasaten dituzten emazteak, nekezian direnak,...



● Larrialdiko etxebizitzak plantan ezartzea GEUZarekin baita etxebizitzak langile gazteentzat ere.

03 ARDATZA

Gizarte kohesio eta
kultura-bizitza indartuak

HELBURUA 09 · 112

Herritarrek laguntzea egokitutako zerbitzu publikoei esker

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

9.1

Lehen haurtzaro Gunearen zaharberritzea
eta handitze



- Lehen haurtzaro gune berria lxakan, haur tipiei zuzendutako gunea: Leihatila bakarra gurasoei haurzaintza motak aurkezteko eta guraso eta haurren arteko animazio gunea.

9.2

Denei zuzendutako laguntza orientazio,
formakuntza eta enplegu urraspideeta



- Denei zuzendutako laguntza orientazio, formakuntza eta enplegu urraspideetan, Tokiko Misiaren bitartez. "Je dis de l'emploi" egitasmoaren plantan ezartzea.

9.3

Entzute, animazio eta proiektu ekintzak, GEUZa,
Sagardian eta gizarte mailako eragile guzien eskutik



- Estatuaren laguntzarekin, France Service zerbitzugune bat sortzea hiri barnean, GEUZak kudeaturik, herritarrei erakunde publikoen aldeko urraspideak egiteko bidea eskaintzeko.
- "Ezkontideen arteko bortizkeriei buruzko harrera zerbitzua" garatzea Sagardian, hiriaren ekimenez eta hark diruztaturik.

03 ARDATZA

Gizarte kohesio eta kultura-bizitza indartuak

HELBURUA 09 · 212

Herritarrek laguntzea egokitutako zerbitzu publikoei esker

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

9.4

Adinekoen bizi kalitatea laguntzea: Lagun Artean kluba, bakartasunaren aurkako borroka, ...



- Lagun Artean klubak adinekoen bizi kalitatea laguntzen du egokitutako animazio ugari proposatuz.
- GEUZak herritar talde baten sortzea lagundu du, "Behartsuen anaiatxoak", 2020tik goiti.

9.5

Eremu publikoan, denen helgarritasuna segurtatzeko antolaketa segitzea



- 2020an, Kexiloko erabilera anitzeko gelaren aldagelak eta komunak helgari ezartzea eta zaharberritzea.
- Lurren iragazkortasuna kontuan hartzea eremu publikoaren berritzean.

9.6

Hiriko langileei lehen sokorriak ekartzeko jestuak irakastea eta desfibrilagailuak ezartzea hirian



- Urtero, hiriko langile batzuei lehen sokorriak ekartzeko jestuak irakasten zaizkie. Langileen %60a formatua da.
- Desfibrilagailuak zabaltzea hirian, publikoa errezibitzen duten etxeetan.

03 ARDATZA

Gizarte kohesio eta
kultura-bizitza indartuak

HELBURUA 10 · 1/2

Kultura eta kirol politikak garatzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

10.1

Ikuskizun bizidunari zuzendutako kultur zentro bat eraikitzea eta kultura programazio bat gauzatzea: ikuskizun bizidunak, arte plastikoak, irakurketa publikoak, ...



● Ikuskizun bizidunari zuzendutako Peyuco Duhart kultur zentroaren eraikuntza, 2023ko irailean inauguratua.

10.2

Denei zuzendutako ondarearen aldeko bitartekaritza urratsa garatzea Donibane Lohizune - Ziburu Arte eta Historia Herrialdea labelaren bidez



● Arkitekturaren eta ondarearen interpretazio zentro bat sortzea, erakusketa iraunkor bat, aldi bateko erakusketa areto bat eta pedagogia eta kultura areto batzuekin.

● Bisita gidatuek eta nazio mailako egunetan baitan antolatutako bitartekaritzek ondare politika azkar bat zabalitzen segitzeko bidea ematen dute.

10.3

Kirolaren praktika sustatzea



● Hiriak "Ville de surf" deituriko labela lortu du 2023ko ekainean.

03 ARDATZA

Gizarte kohesio eta
kultura-bizitza indartuak

HELBURUA 10 · 212

Kultura eta kirol politikak garatzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

10.4

Hobekuntza kontratua plantan ezartzea euskararen
garapenerako



- Langile bat hartzea euskara sustatzeko langileen artean eta lurraldean.
- Euskarari eskainitako Herriko Etxeaz kanpoko batzorde bat sortzea.

10.5

6-17 urtekoendako gazte animazioak oporreta



- Animazio ugari proposatuak zaizkie 6-17 urteko gazteei oporretan, ateraldi jostagarriak eta kirol arlokoak.

10.6

Kirol praktiken baloratzea elkarre sare dinamiko
bati esker, Kirol anitzeko Donibane, Urdazuriko kirol
ibilbidea...



- "Kirol hiria denentzat" 5 izarreko labelizazioa.
- Hiria "2024ko Joko Lurra" labelizatua.
- Engaiamendu gutun bat ere plantan ezartzea ekitaldi eko-arduratsua-
goak antolatzen dituzten elkarreentzat.

03 ARDATZA

Gizarte kohesio eta kultura-bizitza indartuak

HELBURUA 11 · 112

Herritartasun ohitura berriak ezagutaraztea eta harraraztea

Egitate eremua : Beharbizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

11.1

Lineako hurbileko zerbitzu bat sortzea hiriko edozein arazo adieraztek



Lineako hurbileko zerbitzu bat hedatzea hiriko edozein arazo adierazteko 2021eko azarotik goiti.
 » www.saintjeandeluz.fr/eu/zure-desmartxak/hurbiltasun-demartxak/arazo-bat-ohartarazi

11.2

Herritar bizitzan sartzeko gazteen proiektuak sustatzea



Gazteak herritar bizitza mailako proiektuetan sustatzeko, hiria Passeport Civisme (Herritartasun Pasaporte) sarean sartu da.

11.3

ubliko zabalaren aldean, kalitatezko eta tokiko janaria sustatzea: tokiko ekoizleen merkatuak, hitzaldiak, topaketak, sukaldaritza tailerra...



Kalitatezko eta tokiko janaria sustatzeko ekitaldiak antolatzea, hala nola sortzaileen eta tokiko ekoizleen merkatua, Urri Gormanta.
 Donibaneko 60 saltegi baino gehiagotan soilik erabil daitezkeen erosbunak garatzea.

Herritartasun ohitura berriak ezagutaraztea eta harraraztea

Egitate eremua : ■ Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea ■ Ingurumenaren zaintza ■ Gizarte kohesioa eta elkartasuna
■ Bizi koadroa ■ Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** ● Egina ●●● Aribidean

11.4

Numerikoa erabiltzeko ohiturei irekitzea mediatekan: gune numerikoa eta tresna berri batzuk (irakurgailu numerikoak...)



- Gune numeriko bat sortzea mediatekan eta numerikoaren arloko aholkulari bat hartzea "Aidant connect" dispositiboan zabaltzeko.
- Hiria lurraldeko haustura numerikoa murrizteko bidea ematen duen labelizazio urraspidean engeiatua.

11.5

Publiko zabala oieskeriei sentsibilizatzea: afixa kanpaina, herritartasun zerbitzu misioaren bidez gazteak enplegatzea, hondakinak basaki botatzea isunaz zigortzea...



- Hiria sentsibilizazio eta komunikazio ekintza ugari abiatu ditu oieskerien aurka borrokatzeko.

11.6

Hondakinen kudeaketa hobetze



- 2022tik goiti, bereizketarako zikinontziak plantan ezarriak Hondartzan handian.
- Merkatuko saltzaileekin hondakinak murrizteko eta kudeaketa hobetzeko beti hitz egitea.

03 ARDATZA

Gizarte kohesio eta
kultura-bizitza indartuak

EKINTZA OSAGARRIAK

Urrunago joateko

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

A.1

France services gune berri bat ireki da eguneroko desmartzak egiteko



- Gizarte Ekintzako Udal Zentroko egoitzan kokatua da eta denendako da, donibandarrak eta inguruetako herritarrek zerbitzu publikoko erakunde nagusiak erabili ahal izateko.

A.2

Larruneko mediateken sareak karta bakarra plantan ezarri du



- orain karta bakarrarekin kitorik sar daiteke Larruneko mediateken sareko katalogo komunean, baita ere atari numerikoan.

A.3

Eskola-jazarpenari buruz komiki bat sortzeko eskolaldi inguruko proiektua, eta ikasleendako prebentzio egunen antolaketa



- Eskolako 41 haurrek (CPIk CM2ra) beren baitarik egin lan kolektiboa kontatzen du. Eskolaldi inguruko animatzaileek sostengaturik eta ilustratzaile profesional batek lagundurik zenbait istorio asmatu dituzte komiki moldean eskola-jazarpena aipatzeko.

Hiriko zerbitzuen karbono-energiekiko menekotasuna murriztea

Egitate eremua : ■ Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea ■ Ingurumenaren zaintza ■ Gizarte kohesioa eta elkartasuna
■ Bizi koadroa ■ Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** ● Egina ●●● Aribidean

12.1

Hiriko ondarearen zaharberitze energetiko eta termikorako plana gauzatzea, energia erreferente bat izendatzea



- Ikerketa bulego bat laguntzea hirugarren sektoreko ekonomia eskema bat egiteko.
- Energia Urritasunerako Hiriko Plan bat plantan ezartzea hiriko eraikinen jariaikin kontsumoa murrizteko (gasa, argindarra eta ura).
- Energia-erreferente bat izendatzea: arduraduna.

12.2

Hiriko argien zentzuzko kudeaketa garatzea eta argi kutsadura murriztea



- Gaueko hiriko argiak itzaltzea auzotegi batzuetan eta hiriko argien diagnostiko bat egitea Territoire d'Energie 64 egiturarekin loturan. Egina
- LED argiak zabaltzea Xantakoko padel eta tenis jokalekuetan eta Ravel, Xantako eta Urdazuriko gimnasioetan.

12.3

Energia berriztagarrien garapenerako ikerketa: hiriko kanpalekuko duxak eguzki energiaz berotzea



- Energia berriztagarrien garapena sartzeko hiriko proiektu guzietan. Eguzki energia sistema ezartzea hiriko kanpalekuko ur beroa ekoizteko, 3 mikro haize-errotak hiriko ondarean, eguzki-argimutlak ezartzea Akotzen...

Hiriko zerbitzuen karbono-energiekiko menekotasuna murriztea

Egitate eremua : ■ Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea ■ Ingurumenaren zaintza ■ Gizarte kohesioa eta elkartasuna
■ Bizi koadroa ■ Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** ● Egina ●●● Aribidean

124

Diesel ibilgailuak ibilgailu elektrikoekin edo hibridoekin ordezkatzea, erregai biologikoak baliatzea ibilgailu batzuentzat



●●● Diesel ibilgailuak pixkanaka ibilgailu elektrikoekin eta hibridoekin ordezkatzea. 2022an, 4 ibilgailu iraunkor berri sartuak izan dira hiriko ibilgailu multzoan eta beste 2 erosiak izan dira 2023an.

● Apairuak ekartzeko zerbitzua ibilgailu elektriko batez hornitua da.

125

Hiriko zerbitzuetako jarduerak sortutako hondakinen bereizketa hobetzea



● Hiriko zerbitzuen galtzarrean, papera bereizteko sistema bat plantan ezartzea.

● Paper inprimaketan urritasun handiagoa garatzea eta elkargoak erabiltako tinta tutuak errekuperatzeko sistema bat plantan ezartzea, CONIBIren bitartez.

126

Hiriko langileak eta eremu publikoetan dabilzan herritarak ohitura iraunkorrei sentsibilizatzea: hondakin gutiago sortzea, berokuntza, komunikazio numerikoa...



● Eskolako langileak janari xahutzeari eta konpostatzeari sentsibilizatzea.

● Garbigarri naturalei sentsibilizatzekeo tailerrak antolatzea.

● Langileak numerikoaren eraginari buruz informatzea eta eragin ekologikoa murrizteko aholkuak zabaltzea, Informazio Sistemen Zuzendaritzaren eskutik.

Hiriko "Finantzabidea eta erosketa" funtzioa mobilizatzea ohitura eta eskaintza ekonomiko eko-arduratsuak bultzatzeko

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

13.1

Eskaerak auzoko elkargoekin bateratzea (fotokopiagailuen merkatua adibidez) mailako ekonomiak egiteko



- Eskatera bateratua plantan ezartzea eskolako jantegirako Ravel kolegio eta lizeoko jantegi kolektiiboarekin loturan, mailako ekonomiak egiteko.

13.2

Ingurumen irizpideak sartzea Hiriko erosketa politikan: ekoizkin eko-labelizatuak, ibilgailu hibridoa...



- Eskatera Publikoko elkargo barneko gidaliburua aldatzea ingurumen alderdia barne hartzeko Hiriko erosketa politikan.
- Obra merkatuetan garapen iraunkorrari buruzko irizpideak sartzea: hondakinen kudeaketa, ekaien berrerabilpena...

13.3

Naturaguneak artatzeko merkatuetan gizarte mailako irizpideak sartzea



- Hiriko naturaguneen artatzea ADELI gizarteratze elkartearen esku uztea, gizarte mailako irizpideak barne hartuz.

Hiriko "Finantzabidea eta erosketa" funtzioa mobilizatzea ohitura eta eskaintza ekonomiko eko-arduratsuak bultzatzeko

Egitate eremua : ■ Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea ■ Ingurumenaren zaintza ■ Gizarte kohesioa eta elkartasuna
■ Bizi koadroa ■ Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** ● Egina ●● Aribidean

13.4

Zerbitzu publikoen zerbitzuen ordainketa errazteko aterabide teknikoak zabaltzeko ikerketak: jantegiak, aparkatzea...

Avec mon espace, je me facilite la ville!

Pour l'embarquement en ligne vousonline :

- Je prends rendez-vous sur www.rendez-vousonline.fr
- J'ai déjà rendez-vous et/ou j'accède à la plateforme

- Autres démarches : changement de nom d'enfant, obtenir un certificat (vie commune, changement de résidence), organiser un mariage et signature

En cas de besoin :

- la Mairie vous accueille du lundi au jeudi de 9h à 16h30
- contact@saintjeandeluz.fr / 05 59 51 61 7
- l'État civil vous reçoit du lundi au jeudi de 9h à 16h30
- population@saintjeandeluz.fr

● Linean, "Familia" gune bat sortzea, zerbitzu publikoen zerbitzu batzuk elektronikoki ordaintzeko eta hirigintza eta egoera zibileko prozedurak desmaterializatzea.

13.5

Desmaterializazioa plantan ezartzea elkargo barneko eta kanpoko prozeduretan: izenpe elektronikoak, erosleen plataforma...

ASSOCIATION LE LABEL LE CONSEIL ATELAS

COMMUNION

Services numériques

BOUTIQUE NUMÉRIQUE DES SERVICES NUMÉRIQUES

ATELIER NUMÉRIQUE SERVICES NUMÉRIQUES

PORTAL DES ASSOCIATIONS

ACCÉSSIBILITÉ NUMÉRIQUE DU SITE DE LA VILLE

PORTAL CITOYEN - PORTAL FAMILIAL

REPRÉSENTATION DU CONSEIL

● Elkargo barneko prozedurak desmaterializatzeko programa bat zabaltzea, giza baliabideak, finantzabideak eta legezko agirientzat.

● Zerbitzu teknikoek kudeaketarako programa bat eta lurraldeko elkarten prozedurei eskainitako eremu numeriko bat garatzea.

13.6

Hiriko argindar hornikuntza merkatuetan energia berde kontratuak garatzeko diru-mailako ikerketak



●●● GEUza ENARGIA enpresaren kide da, energia mistoko kontratua, energia berde parte batekin argindarrari dagokionez.

Hiri Iraunkorra urraspidea animatzeko eta erregulararki ebaluatzeko elkargo barneko baldintzak gauzatzea

Egitate eremua : ■ Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea ■ Ingurumenaren zaintza ■ Gizarte kohesioa eta elkartasuna
■ Bizi koadroa ■ Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** ● Egina ●●● Aribidean

14.1

Biztanleekin hitzartze erregularrak plantan ezartzea Berriak hiriko aldizkaria, biltzar publikoak, tailerrak, hitzaldiak eta abarren bitartez...



- "Nire auzotegia maite dut, parte hartzen dut" urraspidea sortzea, Herriko Etxeaz kanpoko auzotegietako batzorde bat plantan jarritz. Auzotegietako ordezkariak izendatzea auzotegietako biltzarrek antolatuzeko, hitzartze erregularrak errazteko.
- Biltzar publikoak plantan ezartzea gai berezi batzuei buruz (Bizikleta eskema, urte askotako Antolaketa Programa...).

14.2

Hiriko zinegotziek eta zerbitzuek eramandako ekintzak segitzea, eta aitzinatze egoera aurkeztea



- Hiri Iraunkorra Urraspidea zertan den aurkeztea, hiriko zinegotziek eta zerbitzuek eramandako ekintzen berri emateko.

14.3

Garapen iraunkorraren urraspidea, Euskal Hirigune Elkargoak daramatzan energia eta ekologia trantsizio politikekin loturan



- Euskal Elkargoarekin elkarlana garapen iraunkorraren urraspideak gauzatzeko, hala nola ondoko gaiet dagokienez: Itsasertz espazioa birmoldatzeko AEP, mugikortasun politika bizikleta hedatuz, bitarteko aparkalekuak eta garraio publikoak, eraikinen eta hiriko argien urritasun energetikoa...

04 ARDATZA

Trantsizio energetikoan sartzen diren hiriko zerbitzuak

EKINTZA OSAGARRIAK

Urrunago joateko

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea Ingurumenaren zaintza Gizarte kohesioa eta elkartasuna
 Bizi koadroa Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra - **Aitzinatze egoera:** Egina Aribidean

A.1

Igerilekuko berritze energetiko obrak



- Panel fotovoltaikoak ezarri dira, teilatua isolatu da eta irazgaiztu, pareta hesgailua eta argiztapen sistema ordeztu dira.

A.2

Herriko kanpalekua berritu da



- Eguzki panel termikoak ezarri dira baita ere ur beroaren berreskuratzeke sistema dutxetako arroiletan.

A.3

Herriko langileak sentsibilizatu dira



- Bareko komunikazio kanpaina argindar, berokuntza eta ur kontsumoa murrizteko.

PARTAIDEAK

ADEME, Herriko agenteak, laborariak eta arrantzaleak, ADELI, elkarteak, gizarte alokatzaileak, Gizarte Ekintzako Udal Zentroa, Sagardian gizarte zentroa, inguruko elkargoak, komertsanteak eta komertsante elkarteak, Euskal Hirigune Elkargoa, Pirinio Atlantikoetako Departamendua, tokiko enpresak, Ipar Euskal Herriko Tokiko lur-funtsen Erakunde Publikoa (EPFL), Itsas Hegia IPE-GIP, eremu publikoko biztanle eta erabiltzaileak, Elkargoko Turismo bulegoa, Euskararen Erakunde Publikoa, Pôle emploi, haurtzaroaren profesionalak, merkataritza-lokalen jabeak, Akitania Berriko eskualdea, AMAPen sarea, Saint-Jean-de-Luz Animations, Commerces et Événements egitura, Estatuaren zerbitzuak, SAFER, Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatua, Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen sindikatua, Bil Ta Garbi sindikatua, Donibane Lohizune eta Ziburuko badiako herriarteko sindikatua

Donibane Lohizune garapen iraunkorraren alde engaiaturik

Zertan gara 2024ko urtarrilean
Dokumentu hau kontsulta dezakezu saintjeandeluz.fr
webgunean



Herriko etxea - 2 Louis XIV plaza
64500 Donibane Lohizune
Harremanak: villedurable@saintjeandeluz.fr